

ITXASOA TA LEORRA. ASIA

Iretargira igon ziranen artean, olako alkar-izketa bat izan zeitekean:

—I, urrin gaiagozak gure lurretik! Zugatzak, ibaiak, bideak... ez dozak bereizten!

—Egia dok! Eta erriak be ez dozak agiri lengo lekue-tan.

Eta gorago igon ziranean:

- Gure luna biribil eta eder, urdin-urdin agiri dok.

—Bai, baiña zer dozak biribil aundi ta eder onen barruan agiri dozaken illun-une oneik?

—Benetan illun-une aundiak dozak, batzuk illunagoak, beste batzuk ez ainbeste.

- Ba, illun-uneak luna legor dagoan lekuak izango dozak, lur-banu zabalak: Euroasia, Afrika, Amerika biak Ozeania eta ardatz buru bietako lunaldeak.

—Orduan, mota argiagoak itxasoak izan bear, Atlantikoa. Barea eta indikoa.



Itxasoen sailleak lautatik iru dira lur-azal osoan eta legor-une guztiak batu ezker, ez litzakez izango itxaso Barea'ren besteko arloa.



Lur-azalaren alde bat: itxasoak zabalagoak dira. (Eurasia-Afrika)

Afrika'k iru-zoko baten antza dauko.

Eurasia'k erdian Ural-mendiak dirala, Europa ta Asia ditu eta leorraren geiena dira.

ASIA

Legorren zatirik aundiena ta jentetsuena da Asia,. Lur-azal osoaren iparraldean dago, goi-aldeetik iparraldeko izotzak eta be-aldean lur-garriko beroak dituala.

Asia'n zabalune izugarriak dagoz, esaterako Siberia, Txina ta India eta bitarteetan basamortu aundiak: Tibet, Mongolia, Iran, Arabia.

Tarteka mendi.tantai aundiak, Himalaia munduko aundi^gna dala. Emen Everest 8000 m.'koa.1953n. urtean eldu zan gainera lenengoz anglandar bat Tibet'eko morroia lagun ebala.

Asia'k bakarrik munduko gizaki guztien erdia dauko, leiñu eta enda guztietakoak.

Baiña ba-daukoz iñor bizi ez dan lurralde zabalak be, esaterako Siberia'ko lur izoztuak, India menditsua, Mala-sia'ko baso baltzak.

Biztanlerik geienak arroza jaten dabe. Anaza zingira-lurretan artzen da eta ugaria da, urteko uzta bi be amoten dauz lunak, baiña asko izan arren ez da naikoa janari jentetza osoarentzat. Eta egin bear jakon lana neketsua da, nekazariak txiroak izaten dira.

Asia'n bizi dira munduko errialderik zarrenak, Txina'tarrak, Japon'darrak eta askotariko leiñuak, Tibet'en goi-aldeetan batzuk.

1939-1945'ko guda-aldian asko jazan bear izan eben Asia'tanak, batez be Japon'en kizi-indarrezko lerkaiak lertu ziranean.

Toki batzutan arroria dabe irabazbide ona, batez be Irak, Iran, Kaukaso eta Arabia'ko lunaldeetan

Mundu guztia dauka ikaraz Irak'ek iñoz amaitzen ez dan guda-antzekoak, eta Bin Laden buru dala, Islan'danak asi daben kristiñauen aurkako izukeriak zer-pentsau emoten dau. Gogoratu Ipar-Amerika'ko liraillaren 13n. eguna (2001)eta Madrid'eko martiaren 13n.'ekoa (2004).

Munduarentzat ezaugani diran unen artean gogoratu dauiguzan Asia'n Jerusalem, un ospetsua judatarren, islandarren eta kristiñauen un santua, Mesopotamia'koa izan zan Bailonia k.a.'ko 2000n. urtean, Nepal'eko inditanen lekaide-etxeak, Txina'k aurrean darabiltzan lamak buru dirala, pagoda aniganiak, Txina'ko anesia orain bi milla urte egiña eta eundak km.'ak luze dauzana.

Jakintsu aundiak eta ospetsuak be izan dira Asia'n: Buda, Konfuzio, Lao'Tse, Zaratustra... Guztien artean Asia lurralde oso erlejiño-zale biurtu dabe.

OLAZAR'tar Martin 'ek